



Catch Me If You Can, Fikziozko istorio erreala

Steven Spielbergekin filmografia zabala dauka oso. Ia orotarik egin da produktore, zuzendari, edo gidolari gisa. Akaso, komedia izan da zuzendari gisa gutxien jorratu duen eremua. *Catch Me If You Can* har liteke istorio errealean oinarrituriko komedia eta abenturaren arteko nahasketa bat bezala.

Protagonistatzat Hollywoodeko bi izar sonatu eta *garesti* ditu filmak. Leonardo DiCapriok estreinakoz lan egin du Spielbergekin, eta Tom Hanks bere lagun minak errepikatu egingo du, *Saving private Ryan* filma protagonizatu ostean.

Frank W. Abagnalaren (DiCapriok antzeztzen duen pertsonaia) autobiografian oinarriturik dago *Catch Me If You Can*. Abagnale iruzurgile aparta eta iaioa izan zen. 20 urte bete aurretik, alde egin zuen bere etxetik, eta hurrenez hurren, Pan Am hegazkin konpainiako kopilotutzat (bi milioi miliatik gora egin zituen xentimorik ordaindu gabe), Louissimako abokatu baten laguntzailetzat, Georgiako ospitale bateko mediku pediatratzat, eta Frantziako unibertsitate batean Amerikako historia irakasletzat pasarazi zuen bere burua. Bere balentriak asko hedatu ziren, eta FBIren bulegoetara iritsi ziren. Carl Hanratty agentea —

Tom Hanksen antzeztzen duen pertsonaia— arduratu zen kasua aztertzeaz, baina Abagnalek aurea hartua zion abantaila handiarekin, eta bereak eta bi pasatu behar izan zituen. Liburuak pertsonaia bitxi horren ibilbideko bost urte kontatzen ditu 70eko hamarkadan, zeinetan Abagnalek AEBtako 50 estatutan, 26 herrialdetan lan egiteko denbora izan, eta 6 milioi dolarretik gora iruzurtu zituen.

Di Caprio-Hanks bikote protagonistaz gain, Nathalie Baye (DiCaprioren ama) frantsesa, Christopher Walken (aita), Jennifer Garner, Martin Sheen, Brian Howe, eta Amy Adams ageri dira gainerako aktoreen artean.

Spielbergen zigilua

Filmaren proiektuak aldaketa eta atzerapen asko izan zituen, harik eta Spielbergekin zuzentzeko erabakia hartu zuen arte. Aurretik, Milos Formanek,

Cameron Crowek, David Fincherrek, Lasse Hallströmek eta Gore Verbinskik ere egin zezaketela aipatu zen.

Spielbergekin aginte makila hartu zuenean, berehala ezarri zuen bere zigilua. Lehenago ere berekin lan egin zuen — *Schindler's list* eta *Minority Report*— Janusz Kaminski hautatu zuen argazki zuzendari gisa. Era berean, bere filmetan ohiko kolaboratzaile duen John Williams musikagileari deitu zion, eta ekoizpen independente bati dagokion zakartasunarekin filmatu zuen. Spielbergekin ez zuen aparteko arazorik izan bere bi aktore sonatuenekin, ezta hauek beraien artean ere. Alde bakarra izan zuten filmaketan Tom Hanksen eta Leonardo DiCapriok. Lehenak, sekula ez zituela bere hartualdiak berrikusten monitorean, eta bigarrenak, aldiz, banan-banan.

Zuzendaria: Steven Spielberg. **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Tom Hanks, Christopher Walken, Jennifer Garner, Amy Adams, Martin Sheen. **Gidoia:** Jeff Nathanson. **Argazkia:** Janusz Kaminski. **Jatorria:** AEB. **Iraupena:** 140 minutu. **Webgunea:** www.dreamworks.com/catchthem/jump2.html. **Estreinaldia:** urtarilak 24.

Nor da Abagnale?



Frank W. Abagnale elezahar bat da. 60ko hamarkadan, gaizkile bilatuena izan omen zen munduan zehar. Pertsonaia hagitz ezberdinak antzeztuz, korporazio erraldoiei iruzur ikaragarriak egin zizkien atsegin bereziko gaztetxo zen orduan. 21 urte zituela, Frantziako Poliziak atxilotu zuen, eta Frantziako bertako, Suediako nahiz AEBetako presondegietatik igaro zen. Giltzapean bost urtez soilik egon zen, bere trikimailu eta azpijoko guztiak Gobernuaren zerbitzura jarri baitzituen. Orduz geroztik, iruzur ekonomikoaren aurkako borrokan dagoen aditu famatu eta errespetatuenetakoa da. Aholkularitza bulego bat dauka, informazio bulego bat, zenbait liburu idatzi ditu gaiaren inguruan, eta finantza enpresa handi eta txikiatarako segurtasun programak sortu ditu.



El gran gato

Zuzendaria: Ventura Pons. **Aktoreak:** Luis Eduardo Aute, Maria del Mar Bonet, Tonino Carotone. **Gidoia:** Ventura Pons. **Argazkia:** Bernat Bosch. **Musika:** Gato Perez. **Jatorria:** Katalunia. **Iraupena:** 105 minutu. **Estreinaldia:** bihar.

Rumba gustuko dute nentzat, ezinbestekoa. Javier Patricio Gato Perez Alvarez ezagutzen ez dugunontzat, istorioa urrunekoa gerta dakiguke. Dokumental honen egitura, geometrikoa da: musikariaren hurbilekoak ziren pertsonen haren bizitzaren eta izaeraren inguruan hitz egiten diote kamerari, edota elkarren artean mintzatzen dira, eta, aldi berean, El Gato Perezek konposaturiko rumba batzuk tartekatzen dituzte zenbait artistak. Hala, ikus liteke nola bere amak, bere bi emazteek, bi alabek eta adiskideek maitasun handiz eta lotsarik gabe hitz egiten duten Buenos Aiestik Bartzelonara heldu zen musikari bohemiar horretaz.



Trece campanadas

Zuzendaria: Xabier Villaverde. **Aktoreak:** Juan Diego Botto, Luis Tosar, Marta Etura. **Gidoia:** Curro Royo, Xabier Villaverde, Juan Vicente Pozuelo. **Argazkia:** Javier Salmones. **Jatorria:** Galizia. **Webgunea:** www.trececampanadas.com. **Estreinaldia:** bihar.

Xabier Villaverde galiziarren hirugarren filma da. *Continental* eta *Finisterre* aurreko bi filmetan bezala, topikoaren legeak urratzeko apeta igartzen dira. Suso de Toro idazlearen istorio batean oinarriturik dago, eta fantasiazko nahiz beldurrezko zinemaren keinuak erabiliz, amaituriko amodioen eta aitatasun ustelen istorio familiar bat kontatzen du.